

15/2007 LEGEA, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa.

1. KAPITULUA - Debekatutako jokaerak

3. artikulua. Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea.

Lehiaren Batzorde Nazionala edo autonomia-erkidegoetan eskumena duten organoak izango dira, debekatutako jokaeratzat lege honetan ezarritako mugen barruan, lehia desleialeko egintzak aztertuko dituztenak, hain zuzen ere lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten diotenak.

4. artikulua. Legeak salbuetsitako jokaerak.

1.- Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei.

2.- Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira.

5. artikulua. Garrantzi gutxiagoko jokaerak.

Lege honetako 1. artikulutik 3.era artekoan aipatzen diren debekuak ez zaizkie ezarriko garrantzi gutxi izateagatik lehiari modu nabarmenean eragiteko gauza ez diren jokaerei. Erregelamendu bidez zehaztuko da zein diren garrantzi gutxiagoko jokaerak zehazteko irizpideak, eta beste batzuen artean, merkatu-kuota zein den hartuko da kontuan.

6. artikulua. Aplikaezintasuna adieraztea.

Interes publikoak hala eskatzen duenean, Lehiaren Batzorde Nazionalak, ofizioz hartutako erabakiaren bidez, eta aldez aurretik Lehia Defendatzeko Kontseiluaren txostena izanda, 1. artikulua akordio, erabaki edo praktika jakin bati ez zaiola aplikatuko erabakitzeko aukera izango du, bai 1. paragrafoan eskatzen diren baldintzak betetzen ez direlako, bai artikuluko bereko 3. paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen direlako. Aplikaezintasunaren adierazpena lege honen 2. artikuluan esaten direnekiko ere egin ahal izango da.